

TOLOSALDEA

2021-2022 ikasturtea



ESKOLAKO
AGENDA
2030

15
LEHORREKO
BIZITZA



BASOIA



AMASA-VILLABONA
Villabonako Udala



Tolosaldea
garatzen



tolosakoingurumenzentroa




ingurugela

- EGUNON DENOI!
- Eskolako Agenda 2030 proiektuaren bidez aurten landutakoaren berri emango dizuegu.
- Aurtengoan, Garapen Iraunkorrerako 15. helburua (GIH) izan dugu abiapuntua: **LEHORREKO EKOSISTEMETAKO BIZITZA**. eta oso helburu zabala denez, zehazki,


BASOA


ren inguruan aritu gara lanean.



Lantaldea


AMASA-VILLABONA

- 
- Fleming Herri Eskola
 - Zubimusi ikastola.
 - Erniobea institutua.



Lehen Hezkuntzako 1.
mailatik hasi eta DBHko
4. maila arte, 1.105 ikasle
aritu gara lanean.
Irakasle eta gurasoen
laguntzarekin batera.

Egindako lana



- Udazkenean, gaia ezagutzeko motibazio jarduerak eta eskolako diagnostikoa burutu genituen.
- Udaberrian, herriko diagnostikoa egiteko lanen txanda iritsi da.
- BASOA gelan eta gelaz kanpo aztertzen aritu gara.

Jarraian burututako jarduerak eta lortutako emaitzak aurkeztuko dizkizuegu.



HAUR HEZKUNTZA

AMASA-VILLABONA




- Gabonetan, basoen garrantzia eta gure jokaerek basoan dituzten ondorioak landu genituen.

- Villabona inguruan ingurune natural asko ditugula ikusi dugu...



...eta asko
gustatzen
zaigu
ikastolakin
joaten
garenean.






- Basoan....

...libre eta aske sentitzen gara, baina batzuk faltan botatzen dugu eskolarekin gehiagotan joatea.




- Herriko natur gune batean egon gara, basoaren egitura eta egoera aztertzen...


landare eta animalia txiki asko ikusi dugu...
baina zabor batzuk ere bai.



Hauek dira gure konpromisoak



Gure inguruko basoetako eta parkeetako bizidunak babestuko ditugu, zuhaitzak eta landareak puskatu gabe eta animaliak lasai utziz.



Basora joaten garenean, guk sortutako zaborra etxera eramango dugu poltsa batean bakoitza bere edukiontzira botatzeko.



- Basora irten garenean...

adin eta izaera desberdinetako zuhaitzak topatu ditugu:



Haritzak



Pagoak




Pinuak

Intxaurrondoak

Sagarrondoak


Astigarrak

Gaztainondoak...



- Basora joan garenean...

... deforestautako zatiak eta lur mugimenduak ikusi ditugu ere.



Gizakiaren eraginez, biodibertsitatearen galera nabarmena da: Baso asko suntsitu eta zaborra ugaritu da.

- **Herritarren artean basoaren inguruko galdetegia egin dugu:**

... Herritar gehienek, inguruko mendiak ezagutzen dituzte: Loatzo, Uzturre, Belabieta, Andatza, Etxeondo, Otsabi... baina gazteen artean ezagutza eskaxagoa da.



Herritarrek irteera gidatuak faltan botatzen dituzte.

• HARTUTAKO KONPROMISOAK HAUEK DIRA:



Udalak antolatzen dituen ekimenetan, parte hartuko dugu (mendi garbiketak, zuhaitz landaketak...)



Mendira joaterakoan, zaborrik ez dugu botako eta sortzen duguna, gurekin ekarriko dugu bueltan.



LH




HIZKUNTZA DESBERDINETAN, ZABORRA EZIN DELA BOTA ADIERAZTEKO KARTELAK JARTZEA.



HERRIKO PARKETAN ZUHAITZAK IDENTIFIKATZEKO TXARTELAK JARTZEA JENDEAREN EZAGUTZA SUSTATZEKO.



LASTURREN, MAHAIK ETA BANKUAK ALDATZEA ETA EGOERA ONEAN MANTENTZEA.



DBH

✓ HERRIKO MENDI ELKARTEAREKIN ETA IKASTETXEEKIN ELKARLANEAN, GURE INGURUNEA EZAGUTZEKO IRTEERA GIDATU GEHIAGO ANTOLATZEA: Zuhaitz landaketak, gazteentzat orientazio frogak, landare-zuhaitzak identifikatzeko panel informatiboak, mendi ibilbide posibleak diseinatu...



✓ ERAGILE DESBERDINEN PARTAIDETZAREKIN, AUZOLANEAN, BASO ETA ERREKA BAZTERRAK GARBITZEKO EKIMENAK ANTOLATZEA.

Hau izan da ikasturte honetan egindakoa. Datorrenean eta bi ikasturtez 7. helburuaren inguruan arituko gara herriko diagnostikoa egiten, ekintzak bururatzen eta proposamen eta konpromisoen bidez, Amasa-Villabona, Garapen Jasangarrirako Helburuetan aurrera egin dezan laguntzen.



Eskerrik asko zuen arretagatik!

